


Urrikalgarriak, Lehen zatia, 1. liburukia, 10. atala, «Apezpikua argi ezezagun baten aitzinean».

- “Infinitua bada. Hantxe da. Infinituak ez baleuka niretik, neure nia nuke muga, eta ez litzateke infinitua izanen; bestela esanda, ez litzateke izanen.

Beraz, bada. Beraz, bada ni bat.  
Infinituko ni hori, Jainkoa da.”

Urrikalgarriak obran hain konbentzionalak diren azken hitz hauek, ateotzat hartu zuen apezpiku baten oharpide bati erantzunez idazten direnak, askoz konplexuagoa den forma erromantikopean aitzinirudikatzen dira, 1881ean idatzitako Victor Hugoren testamentua eta 1883ko kodiziloaren arabera. Haren antiklerikalismoa, 1850etik aurrera, tolerantzia eta askatasunean oinarritutako bere erlijiotik dator. Otoitza eguneroko gauza izango da beretzat.

André Gil, Victor Hugo mago jantzita. MVH©AKD. Paris.




André Gill (1840-1885), Victor Hugo gudulari baten irudi ederrak Bigarren Inperiopean eman ondoren. Profeta laikoaren itxurarekin irudikatu zuen lehenengoa izan zen. Nadar-ek, Victor Hugori hil-ohean argazkia egitean, antzerki-eszena eta modu piktorikoa erabiltzen dituenek, boterea aditzera ematea lortzen du, baina baita, argiari esker, modeloaren izate sakratua igortzea ere.

1885

1885eko maiatzaren 22an Victor Hugo bere hilobiaren gainean, F. Nadarrek egina. MVH©PMVP.



Victor Hugoren testamentua© Frantziako Artxibo Nazionala



Testu honek, alde batean gehitua, zehazten du: “nire testamentuak azaltzen duena, ez doa oraingo kodiziloaren kontra”

Jendetza panteoiaren aurrean, Victor Hugoren hiletaren hurrengo egunean, 1885eko ekainaren 2an©ND-Violet.



## JAINKOA

Jainkoaganako sinismena etengabe azaltzen da Victor Hugoren pentsamenduan. Egoera guztietan, ateotzat hartu edo materialismoaren militante bihurtu nahi zutenen aurrean jartzen du sinismen hau. Lafarge, Karl Marx-en suhia, ez zegoen oker.

Hugo elizaren bidez ezkondu zen, eta elizkizunetan ere parte hartzea iritsi zen. Hogeita hamargarren hamarkadaren hasieran, Lammenais, Lacordaire eta Montalembert-en L’Avenir (Etorkizuna) egunkariaren gertu zegoen. Baina ez zuen inoiz sinismen instituzionalizatu bezala galderei erantzunak inposatzen zizkien fede katolikorik izan. Pentsatzea, zalantzatzea da. Beretzat, jarraitzen duen erlijioa ona da, eta anatema aurrera eramaten duten elizak, berriz, gaiztoak dira. Victor Hugoren antiklerikalismoa, 1850etik aurrera, bere fedea bezain eztabaida ezina da. Hiletaren ospakizunaren izate laikoak bere azken borondateak errespetatzen ditu goitik behera. Bat ez etortzeagatik Pere Lachaise-ko hilerrian Panteoia nazioaren errepresentanteengatik ordezkatua izanak, berreskurapen ideologikoko ekinga bati erantzuten dio.

Panteoiaren inguruko jendetza hau, jarraigoaren bideko eremuaren adierazpena da, Garaipen Arkuatik. Monumentuaren frontoian eskaintzaren amaiera irakur daiteke.

1883ko abuztuaren 2an Victor Hugok bere azken borondateen idatzi osagarri bat bidaltzen dio Auguste Vacquerie-ri. “50.000 franko uzten dizkiet behartsuei. Hilerrira behartsuen autoan eramana izan nahi dut. Eliza guztietako otoitza gaitzesten dut, arima guztientzako erregua eskatzen dut. Jainkoagan sinisten dut.”